

KOD.: A214

IMMIGRAZIOA

**LEHEN ARIKETA
BIGARREN PROBA**

**Denbora, gehienez: 100 minutu
Galderak: 100.**

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun ereduak.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1.- Zer da IKUSPEGI – Immigrazioaren Euskal Behatokia?

- a) Eusko Jaurlaritzaren barne-behatoki bat, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko langileek osatua
- b) Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaz hitzarmen baten emaitza
- c) Entitate publiko-pribatu bat
- d) Eusko Jaurlaritzaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko lankidetzaz hitzarmen baten emaitza

2.- Nola deitzen da Integrazioarako eta Kulturen Arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua?

- a) ERABEREAN
- b) BERDINDU
- c) GEHITU
- d) BILTZEN

3.- 200/2002 Dekretuaren 4. artikulua araberaz, Autonomia Erkidegoko Herritar Etorrinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan zenbait Lan Batzorde daude, izaeraz iraunkorrak, esaterako hauek (aukera ezazu erantzun OKERRA):

- a) Gizarte Baliabideak eta Etxebizitza
- b) Gizarte- eta lan-mailako txertatzea
- c) Babesa eta asiloa
- d) Herritarren Partaidetza

4.- Eremu hauetan ematen du laguntza ERABEREAN Sareak (aukera ezazu erantzun OKERRA):

- a) Aniztasun funtzionala
- b) Immigrazioa
- c) Herri ijitoaren sustapena
- d) LGTBI kolektiboaren sustapena

5.- Teoria jakin baten arabera, nazioarteko migrazioak atzerritar eskulanaren behar iraunkor bati erantzuten dio, langile autoktonoek ukatzen dituzten lanpostuak betetzeko. Nola deitzen da?

- a) Ekonomia neoklasikoaren eredua (Todaro, Borjas)
- b) Merkatu dualaren teoria (Piore)
- c) Migrazioaren ekonomia berriaren teoria (Stark)
- d) Joera marxistako teoria (Castles, Kosack)

6.- Ikuspegi teoriko jakin baten arabera, migrazio-mugimenduak familia barruko ekintza kolektibo baten emaitza dira. Nola deitzen da?

- a) Ekonomia neoklasikoaren eredua (Todaro, Borjas)
- b) Merkatu dualaren teoria (Piore)
- c) Migrazioaren ekonomia berriaren teoria (Stark)
- d) Joera marxistako teoria (Castles, Kosack)

7.- Nola deitzen zaio pertsona edo giza-talde batek bere jatorrizko lekua denbora luze batean uzteari?

- a) Emigrazioa
- b) Immigrazioa
- c) Itzulera
- d) Remigrazioa

8.- Ravensteinen migrazio-teoriaren arabera, zer dira “push and pull” faktoreak?

- a) Migrazio-fluxuak arautzen dituzten faktore ekonomikoak
- b) Lan-akordio komunak dituzten herrialdeen arteko mugikortasunean eragiten duten faktoreak
- c) Pertsonak lurralde jakin batetik kanpora bultzatzen eta beste batera erakartzen dituzten faktoreak
- d) Immigrazioa hartzen duten herrialdeen migrazio-politikak gidatzen dituzten faktoreak

9.- Aurreiritziaren zein osagarriekin lotzen da estereotipoa?

- a) Emozionalarekin
- b) Esperimentalarekin
- c) Kognitiboarekin
- d) Konduktualarekin

10.- IKUSPEGI – Immigrazioaren Euskal Behatokiak osatutako *Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzio eta jarrerai buruzko urteko 2018ko BAROMETRO*aren arabera... (aukera ezazu erantzun OKERRA):

- a) euskal gizartean gaindimentsionatuta dagoela EAEn bizi diren atzerritar biztanleen bolumenari buruzko pertzepzioa
- b) immigrazioa euskal gizartearentzako arazo pertsonal larrietakotzat jotzen da
- c) integratzeko lanaren zama handiena etorkinen gainean egon behar duela uste da
- d) euskal gizartea hiru talde handitan banatzen da, immigrazioarekiko jarreraren arabera: toleranteak, uzkurak eta anbibalenteak

11.- IKUSPEGI – Immigrazioaren Euskal Behatokiak osatutako *Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzio eta jarrerai buruzko urteko 2018ko BAROMETRO*aren arabera, zein da EAEn estereotipo zabaldiena?

- a) Neurritz kanpo erabiltzen dute EAeko osasun-sistema
- b) Gizarte-laguntzei esker bizi dira eta neurritz kanpo erabiltzen dituzte
- c) Hezkuntza-maila jaitsi egiten dute
- d) Ez dituzte arauak betetzen, ez dute gizalegez jokutzen

12.- Nola deitzen da kultur talde ezberdinen artean eragin-trukea sustatzea du helburu duen integrazio-eredua, elkarren arteko errespetua eta onarpena oinarri hartuta?

- a) Kulturartekotasuna
- b) Kultura-aniztasuna
- c) Asimilazionismoa
- d) *Melting pot*

13.- Zer inplikutzen du kultura-aniztasunak?

- a) Gizartean nagusi den kultura bereganatzea eta jatorrizkoa baztertzea
- b) Kultura berri baten sorrera, kultura nagusia eta gutxiengoena uztartzearen emaitzez
- c) Prozesu alde bakarrekoa, non egokitze-prozesuaren ardura soilik talde gutxituei egotzen zaien
- d) Jatorrizko kultura edo identitatea gordetzea

14.- Nola deitzen da ondorio gisa jatorrizko lekuetako identitate kolektiboen sendotzea dakarren integrazio-eredua, halako moldean non talde bakoitzak bere ohitura propioei eusten dien, gainerakoei bizkar emanda?

- a) Kulturartekotasuna
- b) Kultura-aniztasuna
- c) Asimilazionismoa
- d) *Melting pot*

15.- Nola deitzen zaio jatorriz autonomoak diren bi talde edo gehiagoren arteko harreman intentsu eta zuzenek eragindako kultura-aldaketa prozesuari?

- a) Segregazioa
- b) Akulturazioa
- c) Normalizazioa
- d) Sozializazioa

16.- Zenbatekoa zen atzerritar jatorriko EAeko bizilagunen ehunekoa 2018an?

- a) % 9,4
- b) % 6,8
- c) % 17,1
- d) % 12,5

17.- Zein da Gasteizen 2018an pisu gehien zuen jatorriko herrialdea?

- a) Aljeria
- b) Errumania
- c) Ekuador
- d) Kolonbia

18.- Zein da EAEn 2018an pisu gehien zuen eremu geografikoa?

- a) Saharaz hegoaldeko Afrika
- b) Europa
- c) Latinoamerika
- d) Magreb

19.- Nola deitzen da EAEko eremu eta leku ugarian aurreiritzi, estereotipo edo zurrumurru faltsuei aurre egitea xede duen eragile instituzional eta sozialen euskal sarea?

- a) ZAS!
- b) RECI
- c) Xarxa
- d) Stop Rumores

20.- Gasteizko Udalaren Zurrumurruen kontrako udal strategiaren inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA:

- a) Xedea Gasteizen bizi diren pertsonen artean bizikidetza positiboa sustatzea da
- b) Prestakuntzako, gizarte-sentsibilizazioko eta komunikazio zirrargarrizko jarduerak antolatzen ditu
- c) Bizilagunekin osatzen da, zeinek bere inguru hurbiletan (lanekoan, senidean, lagun artean,...) eragiten eta estereotipo negatiboak indargabetzen saiatzen diren
- d) Soilik hezkuntza arloan saiatzen da zurrumurru faltsuak indargabetzen

21.- Zein da EAEn bizi diren jatorri atzerriko pertsonen kopurua al bait alborapen txikienarekin ematen duen datu-iturri garrantzitsuen?

- a) Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikak
- b) Biztanleria Aktiboaren Inkesta
- c) Etorkin atzerritarrei buruzko inkesta
- d) Biztanleen Udal Errolda

22.- Zein datu-iturritan aurkitu daitezke 2016an jatorri atzerritarreko pertsonen etxebizitzaren edukitza-erregimenari buruzko informazioa?

- a) Biztanleria eta Etxebizitza Estatistika
- b) EAEn bizi diren etorkin atzerritarrei buruzko inkesta
- c) Biztanleen Udal Errolda
- d) Euskobarometroa

23.- 2018ko datuak aintzat hartuta (Aukera ezazu erantzun OKERRA)...

- a) Araba da jatorri atzerritarreko pertsonen tasarik handiena duen EAEko lurralde historikoa
- b) Arabako jatorri atzerritarreko pertsonen tasa EAEko batez bestekoa baino baxuagoa da
- c) Zenbaki absolututan, Bizkaia da jatorri atzerritarreko pertsonen kopuru handiena hartzen duen EAEko lurralde historikoa
- d) Bizkaiko jatorri atzerritarreko pertsonen tasa EAEko baxuena da

24.- Adieraz ezazu erantzun zuzena:

- a) EAEko jatorri atzerritarreko ikasleek sare publikoko ikastetxeetan matrikulatzeko joera dute
- b) EAEko jatorri atzerritarreko ikasleek sare pribatuko ikastetxeetan matrikulatzeko joera dute
- c) EAEko jatorri atzerritarreko ikasleek sare itunpeko ikastetxeetan matrikulatzeko joera dute
- d) EAEko jatorri atzerritarreko ikasleak modu orekatuan banatzen dira sare publiko, pribatu eta itunpeko ikastetxeetan

25.- *Estudio diagnóstico sobre el fenómeno migratorio en Vitoria-Gasteiz 2014* ikerketaren arabera, Araban, zein eredutan eskolatzen dira jatorri atzerritarreko ikasle gehienak?

- a) B eta D ereduan
- b) B ereduan
- c) A ereduan
- d) D ereduan

26.- Zein da Gasteizko Udalaren "Hezkuntza eta aniztasuna" lan-mahaiaren helburua?

- a) Batez ere aniztasun funtzionalarekin zerikusia duten auziak aztertzea
- b) Batez ere genero-berdintasunarekin zerikusia duten auziak aztertzea
- c) Batez ere jatorriko herrialdeak eragindako eskola-segregazioa aztertzea
- d) Batez ere jatorriko aniztasun sozioekonomikoak eragindako eskola-segregazioa aztertzea

27.- Nola deitzen da Euskadiko Etorkinei Laguntza Emateko GKEen Koordinatzailea?

- a) HARRESIAK APURTUZ
- b) BOLUNTA
- c) ERABEREAN
- d) GEU ELKARTEA

28.- Zer da Migrazioarako Euskal Itun Soziala?

- a) Elkarrekin pertsona migratzaileei laguntzeko asmoz sustatutako ekimena
- b) Konpromiso-dekalogo, soilik Euskal Herriko herritarrei zuzendua
- c) Eusko Jaurlaritzak sustatutako agiria, migrazioaren erronkari pluralistotik, elkartasunetik eta beharretik erantzuteko
- d) Erakunde eta elkarten arteko akordioa, pertsona migratzaileei laguntzeko

29.- Zertan datza Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren PREMISA PRAGMATIKOA?

- a) Itunak immigrazioaren alorreko ekintzak eta politika sistematizatzeko aukera ematen du
- b) Immigrazioak baliabide sozial eta ekonomikoak eskatzen ditu
- c) Euskal gizarteak immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharrezko erantzun ahal izateko.
- d) Itunak erakunde publikoen eta elkarten lankidetzarako marko administratiboa ezartzen du

30.- Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren (2018-2020 aldirako) arabera, neurri programatikoak hiru eremutan banatzen dira: lehenetsiak, osagarriak eta bereziak. Hauek dira eremu LEHENETSIK:

- a) Hezkuntza, berdintasuna eta kolektibo zaugarriak
- b) Enplegua, kohesioa eta integrazioa
- c) Osasuna, etxebizitza eta arlo juridikoa
- d) Hezkuntza, enplegua eta bizikidetzak

31.- Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren (2018-2020 aldirako) arabera, neurri programatikoak hiru eremutan banatzen dira: lehenetsiak, osagarriak eta bereziak. Hauek dira eremu OSAGARRIAK:

- a) Hezkuntza, berdintasuna eta kolektibo zaugarriak
- b) Enplegua, kohesioa eta integrazioa
- c) Osasuna, etxebizitza eta arlo juridikoa
- d) Hezkuntza, enplegua eta bizikidetzak

32.- hauek dira Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planaren (2018-2020 aldirako) oinarriko printzipioak:

- a) Berdintasuna, Erantzukizun publikoa eta partaidetza soziala
- b) Berdintasuna; Giza Eskubideak; kultura-aniztasuna; genero-ikuspegia
- c) Zeharkakotasuna; Normalizazioa; Unibertsalizazioa
- d) Berdintasuna, Giza eskubideak eta diskriminaziorik eza; Interakzioa; Kohesio soziala; Elkartasuna

- 33.- Zer dira Gasteizko udal-Elkarguneak?
- Autonomia erkidegoari dagozkion gaiei buruzko proposamenak egiteko eta eztabaidatzeko guneak dira
 - Udalari dagozkion gaiei buruzko proposamenak egiteko eta eztabaidatzeko guneak dira
 - Auzoari dagozkion gaiak berariaz jorratzeko lan-foroak
 - Eskola-munduari zuzenduriko proposamenak egiteko eta eztabaidatzeko guneak dira
- 34.- Hauek dira Bizikidetzaren eta Aniztasun elkargunearen jardura-arloak (aukera ezazu erantzun OKERRA):
- Garapenean Laguntzea
 - Kulturartekotasuna
 - Aniztasun funtzionala eta Bakea
 - Giza Eskubideak
- 35.- Agiri hauetatik, zeinetan oinarritu zen Gasteizko Immigrazioaren Lehen Plan Lokala (2005-2007)?
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala
 - Hirian Giza Eskubideak Babesteko Europar Gutuna.
 - Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna
 - Migrazioarako Euskal Itun Soziala
- 36.- Gasteizko Bizikidetzaren eta Aniztasun Planak aniztasun mota hauek bereizten ditu (aukera ezazu erantzun OKERRA):
- Kultura-aniztasuna
 - Sexu-aniztasuna
 - Aniztasun funtzionala
 - Aniztasun ideologikoa
- 37.- Erronka hauek planteatzen ditu Gasteizko Bizikidetzaren eta Aniztasun Planak (aukera ezazu erantzun OKERRA):
- Pertsona etorkinen integrazioa sustatzea
 - Komunitatea eraikitzea
 - Gure aniztasunean gure burua aitortzea
 - Gasteiz bakearen, giza eskubideen, memoriaren eta bizikidetzaren hiri bihurtzea
- 38.- Zeintzuk dira *Eusko Jaurlaritzaren Jardura-Programa bizikidetzaren sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan* agiria baldintzatzen eta mugatzen duten premisak (aukera ezazu erantzun OKERRA)?
- Nazioarteko erakundeen ebazpenekin bat egitea
 - Nazioarteko terrorismoaren, arrazakeriaren eta islamofobiaren aurkako borroka
 - Mugen eta aukeren esparrua onartzea
 - Konplexutasuna eta huts egiteko aukera onartzea
- 39.- *Eusko Jaurlaritzaren Jardura-Programa bizikidetzaren sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan* agiriaren arabera, zein eremutan lagundu dezake Eusko Jaurlaritzak erlijioa aitazakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokan (aukera ezazu erantzun OKERRA)?
- Neurri egokiak ezartzea terrorismoa finantzatzen duten herrialdeak horretan ez aritzera behartzeko
 - Kultur eta erlijio integrazioa euskal gizartean
 - Polizia-erantzuna EAetik
 - Erradikalizazio biolentoaren prebentzioa (gizartean eta hezkuntzan)
- 40.- Nola deitzen da Euskadiko Komunitate islamikoekin lankidetzaren aritzeko Aholku Batzordea, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiari atxikia?
- EUDEL
 - Erljioarteko Euskal Kontseilua
 - ACCIE
 - ADOS
- 41.- Zeintzuk dira Gasteizko Udalaren Bizikidetzaren eta Aniztasun Zerbitzuaren lan-arloak?
- Aniztasun erlijiosoak; Bakea eta Giza Eskubideak; Kulturartekotasuna; Garapenean laguntzea
 - Aniztasun funtzionala; Kultura-aniztasuna; Kulturartekotasuna; Memoria historikoa
 - Aniztasun funtzionala; Bakea eta Giza Eskubideak; Kulturartekotasuna; Memoria historikoa
 - Kultura-aniztasuna; Bakea eta Giza Eskubideak; Aniztasuna; Memoria historikoa

42.- Nola deitzen da helburutzat honako hauxe duen udal-programa: “topaketa eta elkarbizitza guneak sortzean datza, herritarren arteko hartu-emana, komunikazioa eta elkar ezagutza bultzatuz, berdintasunezkoa eta solidarioa izango den hiriaren alde egiteko”?

- a) Aniztasuna
- b) SEMI
- c) Elkarrekin bizitzen ikasi
- d) Gasteiz Aniztasunaren alde

43.- Nori zuzentzen zaie Bizikidetzaren, aniztasunaren, giza eskubideen eta memoria historikoaren babesa sustatzeko jarduera eta proiektuak eta giza eskubideen babesa sustatzeko jarduera eta proiektuetarako diru-aguntzak emateko Gasteizko Udalaren deialdia (aukera ezazu erantzun OKERRA)?

- a) Helbide soziala Gasteizen duten pertsona juridikoei
- b) Helbide soziala Gasteizen duten fundazioei
- c) Helbide soziala Gasteizen duten pertsona fisikoei
- d) Helbide soziala Gasteizen duten elkarteei

44.- Zenbatekoa da Gasteizko udalerrian bizikidetzaren sustatzeko jarduera eta proiektuen garapena finantzatzeko dirulaguntzara eskabideak aurkezteko epea?

- a) 20 egun baliaduneko, deialdiaren laburpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik
- b) 30 egun baliaduneko, deialdiaren laburpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik
- c) Hilabetekoa, deialdiaren laburpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik
- d) 20 egun naturalekoa, deialdiaren laburpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik

45.- Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidea nahitaez aplikatu beharrekoa izango da Gasteizko Udalaren kontratu guztietan, baldin eta...

- a) 100.000,00 euroko edo hortik gorako (BEZ gabe) lizitazio-aurrekontua edo 4 hilabetetik gorako gauzatze-epea badute
- b) 60.000,00 euroko edo hortik gorako (BEZ gabe) lizitazio-aurrekontua edo 4 hilabetetik gorako gauzatze-epea badute
- c) 100.000,00 euroko edo hortik gorako (BEZ gabe) lizitazio-aurrekontua edo 6 hilabetetik gorako gauzatze-epea badute
- d) 60.000,00 euroko edo hortik gorako (BEZ gabe) lizitazio-aurrekontua edo 6 hilabetetik gorako gauzatze-epea badute

46.- Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidearen arabera, erosketa operazioetan eta kontratazio prozesuetan aplikatzen den jasangarritasun hirukoitzaren printzipioak arlo hauek hartzen ditu baitan:

- a) Soziala, politikoa eta ekologikoa
- b) Soziala, ekonomikoa eta ingurumenarena
- c) Kulturala, ekonomikoa eta ingurumenarena
- d) Ekonomikoa, inklusiboa eta politikoa

47.- Hauek dira EAEn Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko nahitaezko eskakizunak (aukera ezazu erantzun OKERRA):

- a) Ohiko bizilekua den etxeaz gain, beste jabetzarik ez edukitzea
- b) Lanbiden enplegu eta beste zerbitzu batzuen eskatzaile gisa izena emanda egotea
- c) Euskal Herrian erroldatuta egotea eskabidea aurkezteko dataren aurreko azken 6 urtean etenik gabe
- d) Bizirauteko oinarritzko gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez izatea

48.- Nola deitzen da honela definitzen den hura: “Diru-laguntzak dira, aldian-aldian emango ez direnak, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezko diren gastu espezifikoei, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak”?

- a) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta
- b) Gizarte Larrialdiko Laguntza
- c) Etxebizitzarako Prestazio Osagarria
- d) Proposamenak prestatzeko laguntza

49.- Gasteizko Udalaren Kode Etikoaren arabera, hauek dira Udalaren identitatea osatzen duten balioak (aukera ezazu erantzun OKERRA):

- a) Herritarren autonomia sustatzea
- b) Justizia
- c) Bikaintasuna
- d) Eraginkortasuna

50.- Zer da Gasteizko Udalaren Kode Etikoa (aukera ezazu ezazu erantzun OKERRA)?

- a) Jarduteko kode deontologikoa, zeinaren urraketak zigorrak dakartzan ondorio
- b) Udala osatzen duten eta bertan lan egiten duten pertsonen partekatutako balioak jasotzen dituen dokumentua da
- c) Erabakiak hartzean sustatu eta errespetatu nahi diren balioak dira, baita udal langileen arteko harremanetan eta herritarrekiko harremanetan ere
- d) laguntzeko tresna da balioen arteko gatazkaren bat sortzen denean

51.- Zein da Gasteizko Udalaren Kode Etikoa aplikatzen duen organoa?

- a) Balio Etikoen Batzordea
- b) Prestakuntza Etikoaren Ekimenen eta Jarraipenaren Batzordea
- c) Udaleko Etika-Komitea
- d) Etika eta Gobernu Onaren Batzordea

52.- Euskadiko gorroto-gertakariari buruzko 2017ko txostenaren arabera, babestutako kategoria honi dagokio “ideologia eta joera politikoa”:

- a) “Lan kolektiboa” babestutako kategoriari
- b) “Kolektibo etnikoa” babestutako kategoriari
- c) “Erljioa eta sinesmenak” babestutako kategoriari
- d) “Adierazpen askatasuna” babestutako kategoriari

53.- Artikulu honetan arautzen dira bereizkeria-delituak (aukera ezazu erantzun OKERRA):

- a) Zigor Kodearen 314. artikuluan (“Lan-arloan bereizkeriaz jokatzeko delitua”)
- b) Zigor Kodearen 606. artikuluan (“Genozidio-delituak”)
- c) Zigor Kodearen 511. artikuluan (“Izaera publikoko prestazio bat bereizkeriaz ukatzeko delitua”)
- d) Zigor Kodearen 512. artikuluan (“Lanbide- edo enpresa-alorrean izaera publikoko prestazio bat bereizkeriaz ukatzeko delitua”)

54.- Euskadiko gorroto-gertakariari buruzko 2017ko txostenaren arabera, gorroto-gertakari gehien jomugan daude zerikusia dutenak...

- a) Arrazakeria edo xenofobiarekin
- b) Sexu-orientazio eta -identitatearekin
- c) Ideologia eta joera politikoarekin
- d) Sinesmenekin eta erlijio-praktikarekin

55.- Nola deitzen zaio Gasteizen euskara ikasten lehen urratsak ematen ari diren etorkinentzako ikastaroen programari?

- a) Euskara Munduan
- b) AISA
- c) SENDI
- d) EISE

56.- Zein eskakizun bete behar dira Gasteizen euskara ikasten lehen urratsak ematen ari diren etorkinentzako ikastaroetan izena eman ahal izateko (aukera ezazu erantzun OKERRA)?

- a) Atzerriko herritartasuna izatea
- b) 16 urte baino gehiago izatea
- c) Gasteizen erroldatuta egotea
- d) Aurretiaz euskararekin harremanik ez izatea

57.- Gasteizko Udalean eta Udalerrian Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeari buruzko Udal Ordenantzaren 5. Artikuluaren arabera, elebitan idatzita egon beharko dute...(aukera ezazu erantzun OKERRA):

- a) barne-adierazpen eta -tramitazioko egintzak
- b) udal ebazpen eta xedapena, ofizialki publiko egiteko direnean
- c) udal-administrazioko inprimakiak, errotulazioa, iragarkiak eta gainerako informazioak, orokorki herritar guztiei zuzenduak direnean
- d) administrazio-egintza eta ziurtagiriak, baita adierazpenak eta jakinarazpenak ere, salbu eta interesatuek bi hizkuntzetako bat bakarrik erabiltzeko nahia aditzera ematen dutenean

58.- Gasteizko Udalean eta Udalerrian Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeari buruzko Udal Ordenantzaren xedapen gehigarriaren arabera, "Europako Elkarteko herritarren batek Elkartean ofizial diren hizkuntzetakoren batean jotzen duelarik, idatziz, Udalarengana...

- a) hizkuntza bera erabili beharko da erantzuterakoan, baita horren ondoriozko idatzizko gainerako harremanetan ere"
- b) ingelesa erabili beharko da erantzuterakoan, baita horren ondoriozko idatzizko gainerako harremanetan ere"
- c) bi hizkuntza ofizialetako bat (euskara edo gaztelania) erabili beharko dira erantzuterakoan, baita horren ondoriozko idatzizko gainerako harremanetan ere"
- d) bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabili beharko dira erantzuterakoan, baita horren ondoriozko idatzizko gainerako harremanetan ere"

59.- Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen du...

- a) maiatzaren 12ko 93/1999 Dekretuak
- b) apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak
- c) apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak
- d) urtarrilaren 19ko 2/1995 Dekretuak

60.- Zer inplikutzen du Gasteizko genero-berdintasunerako IV. planak (2018-2021) baliatzen duen genero-*mainstreaming* estrategiak?

- a) Talde zehatzetan zentratutako politika publikoak garatu behar direla, kasu honetan –esaterako– emakumeenean
- b) Noizean behin eraldaketa sozialari lagundu dioten genero-neurriak aplikatzea
- c) Berdintasunak eraldatuko duela antolakundea bera, barneko aldaketen, aldaketa teknikoaren eta aldaketa instituzionalen bidez, udal-prozedura eta -prozesuetan nahiz erakunde-arkitekturaren bertan eraginez
- d) Emakumeengana zuzendutako ekintza positiboko zenbait politika txertatu beharra

61.- Zer esan nahi du interseksionalitate kontzeptuak?

- a) Desberdintasunak genero, sexu-orientazio, etnia, erlijio, jatorri nazional, (des)gaitasun eta egoera sozio-ekonomikoaren araberrako menpekotasun-sistemen arteko elkarreraginaren ondorio direla
- b) Generoa, etnia, klasea, sexu-orientazioa edo beste kategoria sozial batzuk zein bere aldetik jorratu behar direla
- c) Generoa dela emakumeei eragiten dieten beste desberdintasun mota batzuk azaltzeko gauza den desberdintasun-iturria
- d) Baldintza eta desoreka desberdinek zeharkatzen dituztela pertsonak eta beren identitateak, zeinetako bakoitzak ikuspegi espezializatua eskatzen duen

62.- Zein ikuspegitik osatu izan da Gasteizko genero-berdintasunerako IV. plana (2018-2021)?

- a) Generokoa, eraldatzailea eta inklusiboa
- b) Feminista, berritzailea eta inklusiboa
- c) Feminista, interseksionala eta giza eskubideen ingurukoa
- d) Generokoa, zeharkakoa eta partizipatiboa

63.- Hauexek dira Gasteizko genero-berdintasunerako IV. Planean (2018-2021) definitu diren jardute-ildoak (aukera ezazu erantzun OKERRA):

- a) Berdintasuna udal gobernuaren ereduan
- b) Zaintzen ekonomia feminista
- c) Gizarte-bazterkerian erortzeko arriskuan dauden emakumeen gizarteratzea
- d) Indarkeria matxistarik gabeko hiria

64.- Gasteizko genero-berdintasunerako IV. plana (2018-2021) zabaltzeko lanari dagokionez, zeintzuk dira Gasteizko Udalaren Berdintasunerako Batzorde Politikoaren zereginak (aukera ezazu erantzun OKERRA)?

- a) Erakundeak IV. Plana ezartzeko eta behar diren baliabideak bermatzeko duen konpromisoa bermatzea
- b) IV. Plana garatzeari begira, lan kolektiboa sustatzea, dinamizatzea, koordinatzea eta zuzentzea
- c) IV. Planaren programazio espezifikoak (xede operatiboak eta jarduerak) diseinatzea
- d) Politikoki onartu aurretik, bi urteko bi programak baliozkotzea, eta IV. Planaren ebaluazioa onartzea

65.- Nola deitzen da aniztasuna kudeatzeko politika kulturartekoak sustatzearekin konprometitutako espainiar estatuko hirien elkarteak?

- a) ZAS!
- b) RECI
- c) Xarxa
- d) Stop Rumores

66.- Zein euskal udalerrri daude Europako “Intercultural cities” programaren baitan (aukera ezazu erantzun OKERRA)?

- a) Bilbo
- b) Donostia
- c) Getxo
- d) Gasteiz

67.- Zein erakundeak sustatzen du “Intercultural cities” programa?

- a) PNUD
- b) Europako Kontseilua eta Europako Batzordea
- c) Migrazioen Nazioarteko Erakundea
- d) ACNUR

68.- Zeharkakotasunaren kontzeptuari buruz ari garelarik, aukera ezazu ezazu erantzun OKERRA:

- a) Antolakuntzarako bitarteko bat, eta haren zeregin da antolakuntzei jarduteko ahalmena ematea antolakuntza klasikoa egokia ez den gai jakin batzuetan
- b) Ikuspegi berririk edo antolakuntzaren egiturako organo bertikalei esleitutako sektore helburuetatik bereizitako helburu ildo berririk eza
- c) Antolakuntzaren arreta gai batean zentratzea eta haren inguruko jarduna areagotzea
- d) Dagokion gaiaren inguruan, antolakuntzak aurrera eramaten duen estrategiaren eta jardunaren sendotasuna eta koherentzia hobetzea

69.- Zeharkakotasuna, hobetzeko bide gisa, Vitoria-Gasteizko Udalean txostenaren arabera, nortzuk dira zeharkako eduki baten lan prozesua aurrera eramaten esku hartzen ari duten eragileak?

- a) Antolakuntzaren arduradun politikoak; sail eta zerbitzuetako zuzendari eta teknikariak
- b) Antolakuntzaren arduradun politikoak; sail eta zerbitzuetako zuzendari eta teknikariak; gizarte eragile eta erakundeak; kasuan kasuko gaien adituak diren pertsonak; herritarrak
- c) Sail eta zerbitzuetako zuzendari eta teknikariak; gizarte eragile eta erakundeak; kasuan kasuko gaien adituak diren pertsonak;
- d) Sail eta zerbitzuetako zuzendari eta teknikariak; gizarte eragile eta erakundeak

70.- Zeharkakotasuna, hobetzeko bide gisa, Vitoria-Gasteizko Udalean txostenaren arabera, zeharkako eduki baten lan prozesua, zer sortu behar da GIZARTEAREN ESPARRUAN eragileen partaidetza sustatzeko?

- a) Sail arteko Batzorde Teknikoa eta Parte hartzeko prozesuak gizarte eragileekin
- b) Herritarrei Informazioa emateko eta haiek banako gisa parte hartzeko mekanismoak, Sail arteko Batzorde Teknikoa eta Udalerriko Gizarte Kontseilua
- c) Udalerriko Gizarte Kontseilua eta Zeharkakotasunari buruzko Batzorde Iraunkorra
- d) Udalerriko Gizarte Kontseilua, Parte hartzeko prozesuak gizarte eragileekin eta Herritarrei Informazioa emateko eta haiek banako gisa parte hartzeko mekanismoak

71.- *Zeharkakotasuna, hobetzeko bide gisa, Vitoria-Gasteizko Udalean* txostenaren arabera, zeharkako eduki baten lan prozesua, zer sortu behar da UDAL ESPARRUAN eragileen partaidetza sustatzeko?

- a) Lan Talde Politikoa eta Sail arteko Batzorde Teknikoa
- b) Udalerriko Gizarte Kontseilua eta Erakunde arteko Batzordea
- c) Erakunde arteko Batzorde Teknikoa eta Udalerriko Gizarte Kontseilua
- d) Sail arteko Batzorde Teknikoa eta Zeharkakotasunari buruzko Batzorde Iraunkorra

72.- Eusko Jaurlaritzaren programa jakin baten xedea EAEn errefuxiatu-kopurua hartzeko gaitasuna areagotzea da, udalek, foru-aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta gizarte-erakundeek egin ditzaketen eginkizunak sendotuz. Nola deitzen da programa hori?

- a) Auzolana I. sistema indargarri osagarria
- b) Babes komunitarioa
- c) Elkargune
- d) Heldu

73.- Eusko Jaurlaritzak programa jakin bati atxiki zitzaion 2018an, zeinaren bitartez gizabanakoen talde edo erakundeak zuzenean inplika daitezkeen errefuxiatuen birkokatzean, finantza-laguntza, emozionala eta integraziokoa emanez. Nola deitzen da programa hori?

- a) Auzolana I. sistema indargarri osagarria
- b) Babes komunitarioa
- c) Elkargune
- d) Heldu

74.- Errefuxiatuen eta babesa eskatzen duten pertsonen kudeaketa eta harrerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak zuzenean jarduteko gaitasuna dauka...

- a) Nazioarteko babesa eskatu dutelarik, Espainiako estatura iristen diren pertsonak kokatzeko eta horiei lehenengo harrera egiteko
- b) Jatorritik nazioarteko babesa eskatu duten pertsonen birkokapen eta birfinkapenak kudeatzeko
- c) Espainiako estatuak hartutako konpromisoen kudeaketa egiteko
- d) Nazioarteko babesa eskatu dutelarik EAEn birkokatu dituzten pertsonen harrera egiteko

75.- *Zein da Esparru-dokumentua, Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Mediterraneoan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa* agiriaren zeharkako ardatzaren helburua?

- a) Lankidetzagune eraikitzaileak sustatzea
- b) Errefuxiatuen harrera politiketan zeharkakotasunez integratzea
- c) Pertsona errefuxiatuen garapen integrala sustatzea
- d) Nazioarteko babesa behar duten pertsonen identifikazio goiztiarra

76.- *Zeintzuk dira Esparru-dokumentua, Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Mediterraneoan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa* agiriaren esku hartzeko ildoak (aukera ezazu erantzun OKERRA)?

- a) Ardatz propositiboa
- b) Justiziaren ardatza
- c) Ekintza humanitarioaren ardatza
- d) Prebentziozko jardueren ardatza

77.- 2017-2020 aldirako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Euskal Planaren zein jarduera-ardatzetan sartzen da "Aniztasunaren kudeaketa positiboa" ekimena?

- a) I. ardatza. Indarkeriaren amaiera antolatua
- b) II. ardatza. Bizikidetzaren normalizazioa
- c) III. ardatza. Bizikidetzaren erronka berriak
- d) IV. ardatza. Zeharkakoa

78.- Nori dagokio 2017-2020 aldirako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Euskal Plana zuzentzeko, bultzatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko ardura?

- a) Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari
- b) Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiari
- c) Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuari
- d) Giza Eskubideen Kontseiluari

79.- Zeintzuk dira kulturarteko bitartekarien zereginak (aukera ezazu erantzun OKERRA)?

- a) Hura hobetzeko asmoz errealitatea soziokulturalean esku hartzea, eta zailtasun sozialak eta gizarte bazterkerian erortzeko arriskuan dauden pertsonen laguntzea
- b) Ikuspegi sozial eta kulturaletik desberdinak diren kolektiboen artean komunikazio, topaketa, elkarreragina eta lankidetzaren erraztea
- c) Aldeen artean bitartekari arituz, gatazken konponketa sormenezkoa bideratzea
- d) Talde eta kolektiboen balorazioan laguntzea, kulturarteko prozesu komunitarioan bakoitzari dagokion protagonismoa emanez

80.- Bitartekaritza birgaitzailea...

- a) Balio-gatazkak konpontzeko prozesuetan aritzen da, gutxiengo kulturalen eta gizarte nagusiaren artean, edo gutxiengoaren euren barnean
- b) Kultur kode desberdineko pertsonen artean komunikazioa eta ulermena hobetzean datza
- c) Arauak eraldatzeko prozesuan datza, arau berriak sortzekoan
- d) Elkarbizitza-guneak sortzen saiatzen da, zeinetan pertsonak elkarren arteko aldeak jar ditzaketen, haietatik ikasteko

81.- Hauek dira gatazketan bitartekaritza egiterakoan jarraitu beharreko printzipioak (aukera ezazu erantzun OKERRA):

- a) Bitartekariaren neutraltasuna
- b) Isilpekotasuna
- c) Bitartekariak dauka boterea
- d) Borondatezkotasuna

82.- Hiriko Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutunaren arabera, subsidiariorotasun printzipioak helburu du zerbitzu publikoak herritarrengandik hurbileneko administrazio mailaren mendean egotea da, ...

- a) hurbilagoak izan daitezen
- b) eraginkorragoak izan daitezen
- c) irisgarriagoak izan daitezen
- d) errentagarriagoak izan daitezen

83.- Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren arabera, EGONALDIA deitzen zaio atzerritar bat Espainiako lurraldean egoteari, ...

- a) 180 egunetik gorakoa ez den denboraldian
- b) 90 egunetik gorakoa ez den denboraldian
- c) 360 egunetik gorakoa ez den denboraldian
- d) 270 egunetik gorakoa ez den denboraldian

84.- Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren arabera, hauetako zein jotzen da arau-hauste astun edo larritzat?

- a) Behin baimenak iraungita, hiru hilabete arte atzeratzea baimen horien berriztatze-eskabidea
- b) Bereizkeriazko jokabideak gauzatzea, arraza-, etnia-, naziotasun- edo erlijio- arrazoiengatik
- c) Atzerritarrak jarduera ilegalak gauzatzean parte hartzea
- d) Lanean aritzea, lan egiteko baimenik eskatu gabe

85.- Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren arabera, kanporatze orok ekarriko du Espainiako lurraldean sartzeko debekua...

- a) gutxienez urte batean eta gehienez hiru urtean
- b) gutxienez bi urtean eta gehienez bost urtean
- c) gutxienez hiru urtean eta gehienez hamar urtean
- d) gutxienez bost urtean eta gehienez hamar urtean

- 86.- Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzeari buruzko urriaren 30eko 12/2009 Legearen 16. artikulua arabera, zein pertsonak dute Espainian nazioarteko babes eskatzeko eskubidea?
- Europar Batasunetik kanpoko nazionalak eta Espainiako lurraldean dauden apatridek
 - Europar Batasuneko nazionalak eta Espainiako lurraldean dauden apatridek
 - Europar Batasuneko nazionalak eta Espainiako lurraldean dauden hirugarren herrialdeetakoak
 - Europar Batasunetik kanpoko nazionalak eta Espainiako lurraldean dauden Europar Batasunekoak
- 87.- Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzeari buruzko urriaren 30eko 12/2009 Legearen 18. artikulua arabera, zeintzuk dira nazioarteko babes-eskatzailen betebeharrak (aukera ezazu erantzun OKERRA):
- Espainiako agintariei laguntzea nazioarteko babes emateko prozeduran
 - Hatz-markak ematea, eta hari argazkiak egiteko eta haren adierazpenak grabatzeko baimena ematea, hari aldeztuetatik jakinarazi ondoren
 - Espainian bizi dela egiaztatzea, bai eta bertan gerta daitekeen aldaketa oro ere, errolda-agiriaren bidez
 - Eskumeneko agintariaren eskaerari jarraiki, informatzea edo haren aurrean bertaratzea, babes eskaerarekin zerkusia duten zirkunstantziak argitzeko
- 88.- Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzeari buruzko urriaren 30eko 12/2009 Legearen 3. artikulua arabera, errefuxiatu izatera onartzen zaio pertsona orori, baldin eta jazarria izateko susmo sendoa badago, arrazoi hauengatik:
- arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, iritzi politikoagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik, generoagatik edo sexu-joeragatik
 - arrazagatik, erlijioagatik, etniagatik, iritzi politikoagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo generoagatik
 - etniagatik, erlijioagatik, iritzi politikoagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo sexu-joeragatik
 - erlijioagatik, nazionalitateagatik, iritzi politikoagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo sexu-joeragatik
- 89.- Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzeari buruzko urriaren 30eko 12/2009 Legearen 18. artikulua arabera, eskubide hauek izango ditu asilo-eskatzailak, behin eskabidea aurkeztu eta gero (aukera ezazu erantzun OKERRA):
- Nazioarteko babesaren eskatzaile-agiria jasotzea
 - Eskatzaileari eragingo liokeen itzulketa-, kanporatze- edo estradizio-prozesuak oro etetea
 - Edozein unetan bere espedientearen edukia ezagutzea
 - Lan-baimena, Schengen esparruko estatu guztietarako balioduna
- 90.- Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzeari buruzko urriaren 30eko 12/2009 Legearen 10. artikulua arabera, babes subsidiarioaren aplikazioa dakarten kalte larriak dira... (aukera ezazu erantzun OKERRA):
- Heriotza-zigorreko eda halakorik materialki burutzeko arriskua
 - Tortura eta gizatasunaren edo duintasunaren kontrako tratuak eskatzailearen jatorrizko herrialdean
 - Gutxienez hogeitun urteko zigorra
 - Zibilen bizitzaren edo osotasunaren aurkako mehatxu larriak, nazioarteko edo nazio barneko gatazka egoeren ondoriozko bereizketa gabeko indarkeriak eraginda
- 91.- Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren arabera, behin betiko bizilekurako eskubidea izango dute...
- bost urte behin-behineko bizilekua izan dutenek
 - hiru urte behin-behineko bizilekua izan dutenek
 - hamar urte behin-behineko bizilekua izan dutenek
 - hamar urtetik gora behin-behineko bizilekua izan dutenek
- 92.- Har dezagun 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, zeinaren bidez onartzen den 2/2009 Lege Organikoak eraberritutako 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa. Haren 150.4 artikulua arabera, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte IRAUPEN LUZEKO BIZILEKU-BAIMENA dutenek atzerritarraren nortasun-txartela berriztatze:
- Indarrean den pasaporte osoa edo bidaia titulua, Espainian baliozkotzat onartua, aurretiaz jatorrizko agiria erakutsita
 - Prozedura izapidetzegatiko tasak ordaintzearen egiaztapena
 - Argazki bat, nortasun agiri nazionalari buruzko araubidean ezarritako irizpideen arabera
 - Lan-kontratuaren jatorrizko alea eta haren kopia

93.- Har dezagun 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, zeinaren bidez onartzen den 2/2009 Lege Organikoak eraberritutako 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa. Haren 124. artikulua arabera, zein da atzerritarren integrazio soziala egiaztatzen duen errotze-txostena ematen duen erakundea?

- a) Ohiko bizilekua duen Autonomia Erkidegoa
- b) Bere bizilekuari dagokion Polizia Nazionalaren polizia-etxe
- c) Atzerritarren Bulegoa
- d) Erroldatuta dagoen udala

94.- Har dezagun 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, zeinaren bidez onartzen den 2/2009 Lege Organikoak eraberritutako 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa. Haren 124.2 artikulua arabera, errotze sozial bidezko baimena eskuratu ahal izango dute gutxienezko urte kopuru jakin batean etenik gabe Espainian egon direla egiaztatzen badute. Zenbat urtez gutxienez?

- a) Bi urtez
- b) Bost urtez
- c) Hiru urtez
- d) Urtebetez

95.- Har dezagun 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, zeinaren bidez onartzen den 2/2009 Lege Organikoak eraberritutako 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa. Haren 133. artikulua arabera, genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrei zuzendutako aldi baterako bizilekua eta lana izateko behin-behineko baimenak...

- a) bi urteko indarraldia izango du, eta bertan titularrak Espainian bizitzeko eta lan egiteko eskubidea duela jasoko da, baita baimena behin-behinekoa dela, baina ez emakumea genero-indarkeriaren biktima dela
- b) urteko indarraldia izango du, eta bertan titularrak Espainian bizitzeko eta lan egiteko eskubidea duela jasoko da, baina ez baimena behin-behinekoa dela, ez eta emakumea genero-indarkeriaren biktima dela ere
- c) urteko indarraldia izango du, eta bertan titularrak Espainian bizitzeko eta lan egiteko eskubidea duela jasoko da; halaber, baimena behin-behinekoa eta emakumea genero-indarkeriaren biktima dela jasoko da
- d) bi urteko indarraldia izango du, eta bertan titularrak Espainian bizitzeko eta lan egiteko eskubidea duela jasoko da, baita baimena behin-behinekoa dela ere

96.- Har dezagun 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, zeinaren bidez onartzen den 2/2009 Lege Organikoak eraberritutako 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa. Haren 154. artikulua arabera, zenbat urtean behin eskatu beharko dute atzerritarren nortasun-txartela berriztatzea IRAUPEN LUZEKO BIZILEKU-BAIMENAREN (EB) titular diren atzerritarrek?

- a) Hiru urtean behin
- b) Bi urtean behin
- c) Bost urtean behin
- d) Hamar urtean behin

97.- Har dezagun 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, zeinaren bidez onartzen den 2/2009 Lege Organikoak eraberritutako 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa. Haren 150. artikulua arabera, zenbat urtean behin eskatu beharko dute atzerritarren nortasun-txartela berriztatzea IRAUPEN LUZEKO BIZILEKU-BAIMENAREN titular diren atzerritarrek?

- a) Hiru urtean behin
- b) Bi urtean behin
- c) Bost urtean behin
- d) Hamar urtean behin

98.- Har dezagun 557/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, zeinaren bidez onartzen den 2/2009 Lege Organikoak eraberritutako 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa. Haren 185.1 artikulua arabera, Espainian bizitzen dauden atzerritarrek Espainian izandako seme-alabek automatikoki eskuratuko dute...

- a) Nazionalitate espainiarra
- b) Gurasoetako edozeinek titulartasunean izango lukeen bizileku-baimen berbera
- c) Iraupen luzeko bizileku-baimena
- d) Iraupen luzeko bizileku-baimena (EB)

99.- Zein da Hiriko Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutunaren ideia nagusia?

- a) Hirian bizi den pertsona orok dauka etxebizitza duina izateko eskubidea
- b) Hirian bizi den pertsona orok dauka herritartasunerako eskubidea
- c) Gobernuen konpromiso politikoa islatzen du, beren udalerrietan gertatzen diren giza-eskubideen urraketen aurka egiteko tresna komun batez –gizarte zibilak formulatu eta ordezkaturak– hornitzeko
- d) Hirian bizi den pertsona orok dauka udal-erabakietan parte hartzeko eskubidea

100.- Hiriko Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutunaren II. artikulua arabera, nork bermatzen ditu Gutunean zedarrizten diren eskubideak?

- a) Udal agintariak, inolako bazterkeriarik gabe, hau da, edozein izanik norberaren kolorea, adina, sexua edo sexu-aukera, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala edo soziala, edo diru-sarreraren maila
- b) Tokiko agintariak, inolako bazterkeriarik gabe, hau da, edozein izanik norberaren kolorea, adina, sexua edo sexu-aukera, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala edo soziala, edo edozein mailako urritasun fisiko edo burukoren bat baldin badu ere
- c) Estatuko agintariak, inolako bazterkeriarik gabe, hau da, edozein izanik norberaren kolorea, adina, sexua edo sexu-aukera, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala edo soziala, edo edozein mailako urritasun fisiko edo burukoren bat baldin badu ere
- d) Europako agintariak, inolako bazterkeriarik gabe, hau da, edozein izanik norberaren kolorea, sexua edo sexu-aukera, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala edo soziala, edo edozein mailako urritasun fisiko edo burukoren bat baldin badu ere